ASMOZ TA JAKITEZ
EUSKO IKASKUNTZA

1997 abendua/diciembre/décembre
Nº 74 zenb.

# Jimeno Jurío ikertzailea, Manuel Lekuona Saria 1998

José María Jimeno Juríok jasoko du Eusko Ikaskuntzaren Manuel Lekuona Saria, 1998. urteari dagokion ekitaldian. Elkarteko Batzorde Iraunkorrak aho batez erabaki zuen saria nafar ikertzaile alde anitz eta nekaezin honi ematea, bere *opera omnia* kontuan harturik, hots, historia, etnologia, folklore eta hizkuntza hartzen dituen obra eta "euskal kulturaren iraupena eta bultzada bere muinmuineko adierazpidean ulertzeko ezinbesteko erreferentzia dena". Izan ere, sari hau 1983an ezarri zen euskal kulturaren alde beren obra osoaren bidez nabarmendu diren pertsonen lana sariztatzearren.

José María Jimeno Jurío 1927an sortu zen Artaxonako nekazari familia batean. Bere ikertzaile ibilbidea argi eta garbi agertzen da argitaratuariko bibliografian, horren barnean sartzen direla 1991tik zuzendu duen nafar toponimiari buruzko bilduma, dagoeneko 41 liburuki bildu dituena, eta Euskaltzaindiaren *Onomasticom Vasconiae* sailean agerturiko ikerketen emaitzak. Ohorezko Euskaltzaina da eta, besteak beste, Instituto Gerónimo de Uztariz, Ateneo Navarro eta Sociedad Vasca de Historia de la Medicina erakundeen sorrera-bazkidea da. Azken tituluen artean, euskararen historiaz duen ardura gero eta handiagoak bideraturik, honako hau aipa daiteke hemen: "Navarra. Historia del Euskera".

Beraz, EI-ren omenaldia jaso dutenen taldea aberastera dator orain Jimeno Jurío, sari emate ekitaldia 1988 udaberrian burutuko bada ere. Manuel Lekuona beraren ondoren, honako hauek izan dira sarituak: Odon Apraiz, Jorge de Riezu, Andrés de Mañaricúa, Justo Garate, Manuel Laborde, Gerardo López de Guereñu Galarraga, Carlos Santamaría, Bernardo Estornes, Francisco Salinas Quijada, Jean Marie Diharce "Iratzeder", Adrian Celaya, Jorge Oteiza eta Micaela Portilla. Eusko Ikaskuntzak, ohikoa denez, sariztatuaren biobibliografia bat plazaratuko du.



*Jimeno Jurío fue vicepresidente por Navarra de EI/SEV.*

## Aumenta el número de investigaciones que reciben ayudas de EI/SEV

En total serán 62, 11 más que el pasado año, los proyectos de investigación que los socios de Eusko Ikaskuntza lleven adelante el próximo año con ayudas de la Sociedad. La cuantía de las becas oscila entre las 72.000 pesetas del trabajo con menor presupuesto y las 300.000 del equipo que más dinero percibirá. La mayoría de los investigadores recibirán ayudas de entre 100.000 y 150.000 pesetas.

**Once Secciones**

El presupuesto total de la convocatoria se repartirá entre once de las quince Secciones que actualmente conforman la Sociedad, dado que no se han presentado propuestas por parte de investigadores adscritos a las áreas de Música, Derecho, Ciencias Sociales y Económicas, y Cinematografía.

Como cada año, EI/SEV convocará en enero las becas "Agustín Zumalabe" y "Angel de Apraiz", cuyo plazo de solicitud terminará el próximo 28 de febrero.

| SECCION | Proyectos | Importe |
|---|---|---|
| Artes Plásticas | 9 | 1.050.000 |
| Antropología-Etnografía | 9 | 1.379.000 |
| Lengua y Literatura | 5 | 750.000 |
| Prehistoria-Arqueología | 8 | 1.375.000 |
| Medios de Comunicación | 1 | 125.000 |
| Física-Química-Matemát. | 1 | 300.000 |
| Folklore | 1 | 225.000 |
| Educación | 4 | 450.000 |
| Ciencias Naturales | 6 | 1.050.000 |
| Historia-Geografía | 17 | 2.270.000 |
| Ciencias Médicas | 1 | 250.000 |
| TOTAL | 62 | 9.224.000 |

ASMOZ TA JAKITEZ INTERNET
http: //suse00.su.ehu.es
Telefónica

## NOUVEAUX MEMBRES

**Eusko Ikaskuntza.** BULLETIN D'INSCRIPTION

Adhérer à Eusko Ikaskuntza c'est la posibilité de rencontrer les meilleurs moyens pour travailler pour notre culture. Remplir le coupon joint et l'envoyer dans un des bureaux de la Société. Nous rentrerons rapidement en contact avec vous.

Nom.......................Prénom.......................
Adresse.......................Code Postal.......................
Ville.......................Téléphone.......................

**Eusko Ikaskuntza:** FACULTE PLURIDISCIPLINAIRE.
29-31, cours du Comte de Cabarrus.
64100 BAIONA.

**Cotisations:** 200 Frs. pour les membres ordinaires. 50 Frs. pour les membres étudiants.

**Les Sections d'EI-SEV:** anthropologie, arts plastiques, sciences naturelles, sciences économiques, cinématographie, droit, education, folklore, his-toire, langue/littérature, moyens de communication, musique, préhistoire/archéologie, sciences médicales, sciences physiques et mathématiques

## Alumnos de Uruguay y México en el primer máster a distancia

Organizado por Eusko Ikaskuntza, en colaboración con la Universidad del País Vasco y la Corte Internacional de Arbitraje y Conciliación Ambiental, el primer máster a distancia interactivo en Derecho Ambiental ha tenido una buena acogida. La oferta académica puesta en marcha el pasado mes de octubre estaba dirigida a licenciados en Derecho y profesionales en ejercicio, y son ya más de veinte las personas que siguen las clases por Internet. A ellos habrá que añadir en breve algunos más, dado que las peculiares características de este curso permiten la incorporación de nuevos alumnos a lo largo del año.

Los inscritos más remotos cursan el máster en México y Uruguay. Igualmente, siguen las clases desde Málaga (dos alumnos), Asturias (2), Barcelona (2), A Coruña (1) y Valladolid (1). En Euskal Herria, hay un matriculado en Alava, cuatro en Bizkaia, dos en Gipuzkoa y uno en Navarra.

El curso se divide en 54 módulos. Cada parte consta de una completa documentación, que se remite semanalmente por correo a todos los participantes. La página interactiva ofrece información jurídico-ambiental y a través de ella, pueden hacerse prácticas y consultas al profesor de cada materia, además de tomar parte en debates de actualidad, en los que docentes y alumnos intercambian opiniones sobre temas concretos relativos al Derecho Ambiental. La administración del máster también se hace por Internet.

Los participantes, tras efectuar un trabajo de investigación y superar un examen obligatorio, obtendrán un diploma equivalente a 54 créditos (540 horas de docencia).



## EI/SEB a rendu hommage au pedagogue bresilien Paulo Freire

Le 15 novembre dernier, la Société d'Etudes Basques a dédié une journée d'étude à Paulo Freire, pédagogue brésilien, sur sa pratique d'enseignement.

Le programme se déroula au Palais Miramar de Saint-Sébastien. Un groupe de personnes en relation avec l'éducation y participèrent et ce fut plus qu'une rencontre d'experts. On rendit un hommage posthume à Freire décédé le mois de mai dernier. Les membres d'Eusko Ikaskuntza regrettent que Freire n'ait pas pu prononcer une conférence au Pays Basque.

Les caractéristiques et l'influence de la pédagogie "Freirienne", ont été examinées. Ainsi avec cette initiative, on a éveillé le désir de connaître son oeuvre et d'encourager la diffusion de ses idées à tous ceux qui ont des responsabilités éducatives.

## EI-ren XV. Kongresurako gaiak aurkezteko epea zabalik

**El plazo de**

*presentación de propues - tas para el XV Congreso de Eusko Ikaskuntza, que se cele - brará en 1999, termina el próximo día 15 de enero.*

Batzorde Iraunkorrak joan den abenduaren 12an egin zuen ohiko bileran, berriki amaituriko XIV. Kongresuaren balantzea egin zuen. Antolatzaileak bat etorri ziren programaren garapena guztiz modu positiboan baloratzerakoan, hala txosten emaileen eta komunikazio egileen mailari, nola jendearen eskuhartzeari dagokienez.

Ildo beretik, bertaratuei buruzko behin betiko datuak jakinarazi ziren bilera hartan. Orotara, 1.116 pertsonak jarraitu zituzten Kongresuaren ekitaldiak egoitza guztietatik. 165 Baionatik, 265 Bilbotik, 160 Donostiatik, 155 Gasteiztik, 273 Iruñetik eta 98 Madriletik.

Ikaskuntza blokeen arabera, Esparru Orokorrak jarraipen handiena bildu zuen, izen emandakoak 407 izan zirela; bigarrena Irakaskuntza izan zen 238 partaideekin; Komunikabideak gero, 195ekin; zerbitzuak, 150ekin; eta Lana, 126rekin. Kopuru horiei internet MBONEko erabiltzaileak erantsi behar zaizkio, horiek ere ordenagailuen bidez hitzaldiak eta eztabaidak aditzeko aukera izan baitzuten. Hartzaileen presentzia egiaztatu da guztiz toki urrunetan, hala nola Japon, Eslobenia edo Alemanian, Parisko Jean Monnet Unibertsitatean, Torontoko Unibertsitatean (Kanada), Oregonekoan eta Columbia Unibertsitatean (EE.BB.), bai eta Rediris Espainiako unibertsitate sareari atxikitako hainbat akademia gunetan.

**Urtarrilaren 15a arte**

Bestalde, Batzorde Iraunkorrak 1999. urtean egitekoa den XV. Kongresurako gaien proposamenak hartzeko epea onartu zuen azkeneko bilkuran.

Ideiak datorren Urtarrilaren 15a arte aurkeztu ahal izango dira, Eusko Ikaskuntzaren edozein bulegotan.



# Egutegia

**Calendario Agenda**

*Urtarrilaren 17an, Gasteizen*
Juan Luis Arsuagaren hitzaldia

Barne mintegi bat antolatu du Eusko Ikaskuntzako Historiaurrea eta Arkeologia Sailak bere bazkideei zuzendurik. Juan Luis Arsuaga antropologoa, berriki Príncipe de Asturias Saria jaso duen taldeko kidea izango da hizlaria. Goizeko 9.00etan hasiko da eta zortzi orduz luzatuko da mintegia, Eusko Ikaskuntzaren Arabako Bulegoan burutuko delarik (San Antonio, 41). Gaia: "Iberiar Penintsulako lehen biztanlegoak".

*Urtarrilaren 28, 29 eta 30ean, Bilbon*
Sinposioa.

"Bilbo: 700 urteren bidean" III. sinposioa "Bilbo, musika hiria" izenburupean burutuko da Bidebarrieta Kulturgunean. Irekiera ekitaldia urtarrilaren 28an izango da arratsaldeko 5.00etan. Joaquina Labajo-k irakurriko du sarrera-txostena. Ondoren, 6.15etan, Carmen Rodríguez Susok, Jon Bagüés-ek, Willem de Waal eta José Carlos Enriquez-ek hartuko dute hitza. Ondoren mahai inguru bat izango da Natxo de Felipe, Alex Iribar, Kepa Junkera eta Ibon Koteronen eskutik. Urtarrilaren 29rako, María Nagore, Natalie Morel, Jacinto Torres eta José Antonio Arana Martijaren hitzaldiak daude aurrikusirik, egun horretan komunikazioen irakurketa ere egingo delarik. Urtarrilaren 30ean, Angel Medina, Aintzane Cámara, Roge Blasco eta Kosme Barañano izango dira hizlariak. Kontzertu batekin emango zaio bukaera egitarauari.

## Ampliada la secretaría de la Revista Jurídica Vasca Eleria

Koro Garmendia Yarza pasará a formar parte del equipo que trabaja la Revista Jurídica Vasca Eleria, tras haber sido seleccionado su currículum de entre los presentados en la convocatoria de beca efectuada por la Sociedad el pasado mes de octubre. Licenciada en Derecho por la Universidad del País Vasco, Garmendia tiene experiencia en traducción de textos jurídicos y un buen conocimiento de los idiomas requeridos para esta publicación.

La Revista Jurídica Vasca comenzó a editarse en 1996, con el propósito de tratar cualquier campo del Derecho en euskara y servir de útil para la normalización del euskara jurídico, tanto en el ámbito universitario como en el mundo de la práctica. Está dirigida por Josu Iñaki Erkoreka Gervasio y la secretaría recae en Itziar Alkorta Idiakez y José Angel Ormazabal Altuna. En su Consejo de Redacción están representados el mundo académico y el profesional, a través de once especialistas que supervisan y orientan sus contenidos.



| Prensa vaciada | Años | Nº de fichas |
|---|---|---|
| **“El Liberal”** (Bizk.) | 1908-1937 | 2.887 |
| **“El Noticiero Bilbaíno”** (Bizk.) | 1900, 1902-1937 | 3.571 |
| **“La Gaceta del Norte”** (Bizk.) | 1939-1944 | 170 |
| **“El Pueblo Vasco”** (Gip.) | 1903-1936 | 4.554 |
| **“El Diario Vasco”** (Gip.) | 1937-1949 | 771 |
| **“El Heraldo Alavés”** (Al.) | 1901-1932 | 2.392 |
| **“El Pensamiento Alavés”** (Al.) | 1932-1949 | 687 |
| **“El Eco de Navarra”** (Nav.) | 1900-1902 | 139 |
| **“El Diario de Navarra”** (Nav.) | 1903-1949 | 7.605 |
| **“Le Courrier de Bayonne”** (Lap.) | 1900-1902, 1931-40 | 3.218 |
| **“Eskualduna”** (Lap.) | 1900-1944 | 2.316 |
| **“Herria”** (Lap.) | 1944-1949 | 572 |
| **TOTAL** | | 28.828 |

## La base de datos de la cultura tiene ya más de 28.000 fichas

En noviembre de 1996 un equipo de socios acometió uno de los más ambiciosos proyectos de Eusko Ikaskuntza: la construcción de una base de datos relativa al siglo XX, que ofreciera información detallada sobre la actividad cultural de Euskal Herria en toda esta época. Terminada la fase inicial del trabajo -el vaciado de prensa correspondiente al periodo 1900/ 1949-, este mes de diciembre dará comienzo la segunda parte, que se centrará en el intervalo de tiempo comprendido entre 1950 y 1975, y en la prensa editada en Navarra la Comunidad Autónoma Vasca y en Iparralde.

**Dentro y fuera de Euskal Herria**

El vaciado se adscribe tanto a acciones culturales llevadas a cabo dentro del marco geográfico objeto de estudio, como las promovidas fuera del territorio por parte de personas nacidas o residentes en él. El abanico de temas recogidos tiene la amplitud que necesariamente se deriva de la denominación genérica de “cultura”. Así, las entradas que el usuario de la base de datos encontrará accediendo a ésta por la opción de materias ascienden actualmente a 36.284. De ellas, 9.299 aluden a temas de arte, 3.024 a asuntos catalogados con el término documentación, 4.719 a cuestiones de etnografía, 2.943 a euskara, 4.771 a historia y 11.528 a literatura. Como en el pasado ejercicio, el proyecto se financiará durante el próximo año con parte del presupuesto corriente de EI/SEV y con las ayudas procedentes de los fondos Aquitania-Euskadi-Navarra. Trabajará esta segunda fase un equipo de seis personas.

## Eusko Ikaskuntza va editer une monographie sur l’art de la Renaissance

Les journées sur l’Art Basque qu’Eusko Ikaskuntza prépáre pour le prochain mois de mars, serviront à présenter un cahier monographique où seront recueillies les conférences demandées par la Section ainsi que les communications qui ont été sélectionnées pour le programme. Fernando Marías (Université Autonome de Madrid) y participera. Il parlera sur la “Problématique chronologique, stylistique et historiographique de l’Art de la Renaissance dans le territoire basque”. José Angel Barrio (Université de Deusto) donnera une conférence intitulée “Architecture civile et religieuse dans la Renaissance basque”. La conférence de Asunción García (Université de Navarre) sera axée sur la “Structure de la Renaissance basque”. La “Peinture Gothique” sera analysée par Pedro Luis Echeverria (Université du Pays Basque). “La gravure basco-navarraise” sera traitée par Juan Carrete (Chalcographie Nationale) et on analysera les “Arts Décoratifs”, de la main de Rosa Martín (UPV). Les actes des journées seront complétées d’une bibliographie actualisée de l’Art de la Renaissance au Pays Basque.

## Goi mailako adituak V. Tokiko Historiazko Jardunaldian

Azken garaietan familiak eta etxeak historiagileen arreta bereganatu dute. Etxeari buruzko ikerketek ez dute fenomeno isolatu bat eskaintzen, gizarte historikoak eratzen dituzten osagaien multzo handiena biltzen duen instituzio bat baizik. Familiaren historiari buruzko ikuspegi berri honi ekarpenak eman dizkio egungo euskal historiografiak. Azaroaren 20an bururituriko jardunaldian Euskal Herriko familiaren historia diziplinarteko ikuspuntu batetik jorratzen jarraitu nahi izan zuen Eusko Ikaskuntzako Historia Sailak, ohiko jarrera, hau da, familia ahaidegora eta maitasunen esparrura mugatzen dituena gainditzeko asmoz.

Irekiera ekitaldiaren ondoren, lehen saioari ekin zioten eskuhartzaileek, Jose Urrutikoetxea eta Pilar Perez-en eskutik. “Euskal familia: errealitatea eta ideologia” izenburuko hitzaldia eman zuten Eusko Ikaskuntzako bi kide hauek. Goiz bukaeran komunikazioen azalpena egin zen eta arratsaldean, beren txostenak irakurri zituzten Maite Lafourcadek eta Fernando Mikelarenak: “Heredentzia eta jabego besterenganatze erak. Oinarri juridikoak eta errealitate historikoa”. Amaierako hitzaldia David S. Reher Madrileko Complutense Unibertsitateko katedradunak eman zuen, familiaren historiari buruzko ikerketen inguruan.





**Reunion au Palais de Navarre.** *C’est au Palais de Navarre que s’est déroulée la dernière réunion de l’année du Conseil d’Administration d’Eusko Ikaskuntza. Miguel Sanz président du Gouvernement de Navarre a souhaité la bien - venue à tous les membres avant de traiter l’ordre du jour. Parmi les sujets traités, le président de la Société d’Etudes Basques a lu le rapport sur la situation économique, et a rendu compte du bilan du XIVème Congrès de la Société, qui s’est clôturé par un bilan positif. D’autre part, comme d’habitude, l’Assemblée a lancé un appel pour présenter des thèmes pour le prochain congrès, afin que l’on puisse faire de nouve - lles propositions. (Photo: Luis Azanza).*

# “Eusko News” prentsa albistegia Interneten

Orain dela pare bat urte Eusko Ikaskuntzako Iparraldeko bazkide batzuek Interneten bitartez "Revue de Press" delakoa sortzeko proposamena egin zuten eta proiektua garatzen hasi. Proiektuaren zergatia euskal diasporarentzako informazioa ematea izan zen. Kontuan izanik diaspora hurbila eta urrunekoak daudela, Paris edo Madrilen bizi diren euskaldunak zein Iparramerika, Australia, eta abarrekoak izango ziren publikazio honen helburu.



**Iñaki Azkoaga**

*dirige el pro - yecto de Revista de Prensa por Internet “Eusko News”.*

Kontuan hartu zen, bestalde, teknologia hau erabiltzen dutenak gazte eta adin ertainekoak direla.

**Euskal informazioa**

Orain proiektua errealitate bihurtzeko bidean dago: barne egiturako ardatza euskal informazioa izango da, Iparralde, Nafarroa eta Euskal Autonomia Elkartetik bildutako albisteez osatuko da. Prentsa aldizkari hau gauzatzeko Iparralde zein Hegoaldean kazetari bana hasiko da lanean, hauek informazioa bildu eta landuko dute "site"-ean sartzeko.

**Agenda**

Agenda gisa zenbait atal aurkeztuko dira, kultura, turismo, sukaldaritza, kirol eta beste zenbait gai ere bertan aurkituko direlarik.

"Euskonews" aurrera eramateko Akitania-Euskadi Nafarroa Fondoen laguntza du Eusko Ikaskuntzak baina asmoa proiektua epe luzean jarraitzea eta gauzatzea denez, hau da, laguntzarik ez dagoenean ere bizi egin beharko denez, autofinantziatzera jo behar da.

*La revista de prensa por Internet de Eusko Ikaskuntza se nutrirá de informaciones recogidas en los medios de toda Euskal Herria*

Autofinantziaketa hau lortzeko, bi eratako errekurtsoak erabiliko ditu: alde batetik bannerrak, eta bestetik "shop" edo denda birtuala delako bat, bertatik aisialdi eta turismo zenbait zerbitzu eskainiko dira eta urrundik erosi daitezkeen produktuak sartuko dira.

**Lau hizkuntzatan**

Web orria lau hizkuntzatan landuko da: gaztelera, frantsesa, ingelesa eta euskara, horrela, edonork gustokoen zaion hizkuntzan informazioa jasotzeko aukera izango du.

Lehenengo alea urtarrilean zehar sarean sartzeko asmoarekin gabiltza lanean, gure zeregina Euskonewsek benetako aportazioak egitea izango da.

Zuen ekarpenen zain izango gaituzue.

## Elecciones

Tres Secciones de Eusko Ikaskuntza renovarán en breve sus presidencias. La Junta Permanente de la Sociedad acordó, en su reunión ordinaria del pasado 12 de diciembre, abrir el proceso de elección en las de Cinematografía, Ciencias Sociales y Económicas, y Folklore, dirigidas actualmente por Juan Miguel Gutierrez, Alfredo García Ramos y José Antonio Quijera, respectivamente. De acuerdo con el Reglamento de la Sociedad, los candidatos deberán ser socios con una antigüedad mínima de un año y ser, asimismo, personas de reconocido prestigio cultural-científico.

## EI-ko kideen liburuak

**“Exil et Solidarite. La Ligue Internationale des Amis des Basques” Jean-Claude Larronde.**

El volumen relata la historia de la Liga Internacional de los Amigos de los Vascos, desde 1937 hasta finales de los años cincuenta. Jean Claude Larronde se centra sobre todo en la ayuda que esta agrupación prestó a los refugiados de la Guerra Civil española y el apoyo que proporcionó a la política del Gobierno Vasco en el exilio, frente al Franquismo.



**“Oficios tradicionales”. Carmelo Urdangarin, José María Izaga y Koldo Lizarralde.**

En ésta su segunda obra conjunta, los autores recorren una serie de oficios tradicionales, la mayoría de ellos desaparecidos, que han pasado a formar parte del acervo económico y cultural de nuestro pueblo. Oficios que han desaparecido sin darnos cuenta, pero que quedaron para siempre en el recuerdo de quienes los conocieron. Los cambios producidos en nuestra sociedad los arrinconaron y mergieron otros acompasándose a la revolución tecnológica que vivimos.



*Teknologia eta Informazioaren Teknologiek gizarte hobeago baten oinarria eskaini behar digute, denon artean aurrera egin ahal izateko. Helburu horrekin bat datozela, Eusko Ikaskuntzako bazkideak Euskal Herri emankorrago bat lortzen saiatuko dira, 1998an ere. Urte berri on, adiskide guztiei!*

**ASMOZ TA JAKITEZ**

**Argitaratzailea:** Eusko Ikaskuntza. Miramar Jauregia. Miraconcha, 48. 20007 Donostia. Tlfnoa.: (943) 310855. Faxa: (943) 213956. Internet: http://suse00.su.ehu.es. **Zuzendaria:** Josemari Velez de Mendizabal. **Zuzendari teknikoa:** Marta Guruziaga Reparaz. **Lege gordailua:** SS-1056/92. ISSN: 1133-9861. **Inprimategia:** Gertu (Oñati. Gipuzkoa). **Harpidetzak:** *Asmoz ta Jakitez* etxean jaso nahi baldin baduzu, idatzi edo dei egin ezazu helbide hauetara: **Eusko Ikaskuntzako Bulego Nagusiak:** Miramar Jauregia. Miraconcha, 48. 20007 Donostia (Gipuzkoa).Tlfnoa. (943) 310855. Faxa: (943) 213956. E-mail: eisev@sk.ehu.es Ordutegia: 9.00-14.00/ 16.00-19.00. **Arabako Bulegoa:** San Antonio, 41. 01005 Gasteiz. Tlfnoa.: (945) 231552. Faxa: (945) 148752. Ordutegia: 11.00-14.00. **Bizkaiko Bulegoa:** Maria Diaz de Haro, 11-1. 48013 Bilbo. Tlfnoa.: (94) 4425287. Faxa: (94) 4414650. Ordutegia: 10.00-14.00. **Nafarroako Bulegoa:** Garcia Castañon, 2-6.ezk. 31002 Iruñea. Tlfnoa.: (948) 222105. Faxa: (948) 211737. Ordutegia: 9.00-14.00/ 16.00-19.00. **Iparraldeko Bulegoa:** Baionako Sailaskotako Fakultatea. Tlfnoa. 07. 33.559529299. Faxa. 07.33.559310518. Ordutegia: 9.00-12.00.